

Rugbya

EUSKAL HERRIAN TALDE HANDI ETA INDARTSU BAT OSATU BEHARRA DAGO AURRERA BEGIRA

Eliteko euskal talde bat?

Profesionaltasunaren bidea ireki zenez geroztik gutxi batzuek jokatu ahal izango dute Frantziako elitean. Dirua ezinbesteko izango da, eta, Baionak eta Miarritzek, bakoitza bere aldetik, nekez egingo diote aurre erronkari. Talde sendoa sortzea litzateke irtenbidea.

Koldo Alduntzin / Baiona

RUGBY-AK bide berriak hartuko zituela bistan zegoen aspalditxotik. Hamabosteko rugbyaz ari gara, hamahirukoa aspalditik baita profesionala. Modalitate horrek, hamahirukoak, Ingalaterran eta Australian du indarra gehienbat, Frantziar hala ere, bada Liga txapelketarik. Frantziak garai gozoak izan zituen Munduko Txapelketa irabazi zuenean, baina gero behera egin du nabarmenki. Babesleak urritu egin ziren, eta gaur egun 16 taldek osatzen dute maila nagusia lau multzotan banatuta.

Hamabostekoak indar handiagoa du, txapelketa nagusian 40 talde dira, eta horietarik hogeik elitekoa osatzen dute. Baiona elitekoen artean da, eta Miarritze txapelketa nagusiko 40 horien artean. Miarriztarrek 1992an Frantziako finala jokatu zuten Parisen, Toulonen kontra, eta galdu egin zuten. Harrezkerotik ez dira hamar onenen artean izan, eta hemendik aurrera puntako taldea izan nahi duenak hamar horien artean egoteko erronkari egin beharko dio aurre.

Kontua da, askoren ikuspegitik, hamabosteko rugbyaren etorkizuna profesionaltasunean dagoela. Egia da Munduko Txapelketak indarberritu duela rugbyzaletasuna hein handi batean, eta V Nazioetako txapelketak bereari eutsi diola, baina hori ez zen nahikoa, eta Europako Txapelketa sortu dute. Zeelanda Berrian, Australian eta Hego Afrikan maila handiko txapelketak jokatzen dira.

Lehen ere aipatua dugu, esate baterako, Hego Afrikako azken Top Ten Txapelketan atzerritar ugari jokatu zuela; horien artean Roumat, Lacroix eta Cabannes frantziar internazionalak eta baita Beñat Dagerre Miarriztekoak ere, Jakina, ez ziren musutruk aritu. Horrekin esan nahi dugu jokalariek soldatak kobratzen hasiak direla formalki.

Gauzak horrela, eta Frantziari gagozkiorarik, talde indartsuak jokalaria onenez hornitzen ahaleginduko dira, bai Liga txapelketa irabazteko eta baita Europakoa jokatzeke ere. Azken horretaz, gero eta ugariagoak dira zenbait taldek Europako Txapelketa besterik ez dutela jokatuko dioten adierazpenak; ez agian heldu den urtean, baina bai bizpahiru urte barru. Ez dezagun ahaztu III. Mundialaren aurretik zer nolako nahasmendua sortu zuen Australiako prentsa magnatea den Murdoch-ek, Liga profesional bat osatzeko ahaleginetan ziharduela-eta.



Baionak eta Miarritzek azken Moga Kopan jokaturiko partidua. Biek bat eginik jarraitzea litzateke egokiena. KOLDO ALDUNTZIN

Baionak eta Miarritzek bat egin edo talde berria

osatu • Laburki adierazitako horren arabera, zer gertatuko da euskal taldeekin? Hori da, hain zuzen ere, azken boladan mintzagai dena Baionan eta Miarritzen gehienbat, eta Euskal Herri osora zabalduko dena. Prentsan eta irratietan ugariak dira mahainguruak eta elkarrizketak, baina oraingoz gauza garbirik ez.

Toulouse, Europako txapelketa, jotzen da ereduztat, duen diru ahalbide eta egituraketagatik. Talde horren aurrekontua 12 milioi liberakoa omen da (300 milioi pezeta); aldiz, Baionakoa sei milioi liberakoa (150 milioi pezeta), eta Miarritzekoa txiki-xeagoa. Beraz, biak elkartuta ere

arazo larriak izango lituzkete. Gainera, talde biak beste kirol batzuk dituzten klubak dira: arrauna, atletismoa, txirrindularitza, eta abar. Horregatik, rugbyak jango balu aurrekontu osoa, besteak zer?

Udalek ere ez lukete orain ematen duten baino diru gehiago emango, eta, gainera, profesionalera joz gero, akabo. Horrez gain, baionarrek Baiona izaten jarrai dezan nahi dute, eta miarriztarrek Miarritze. Egokiena biak batzea izango balitz ere, ez dirudi hala gertatuko denik. Hortaz, zer aukera aurreikusten da?

Euskal Herriak goi mailako talde bat behar duela bat datoz gehienak, ez baitu inork imajina-

tzen Frantziako txapelketa nagusia euskal talderik gabe. Oraingoz, bi aukera aipatzen dira gehien. Serge Blanco Miarritzeko jokalaria internazional ohiak duen proiektua, eta euskal talde berri bat osatzea. Lehenengoak badi indarrik eta osperik babesleak aurkitzeko, agian, hegoaldekoak.

Beti ere, Miarritze izango luke helburu miarriztarrek. Bigarrena, euskal taldearena, urrunago ikusten da. Hemendik aurrera batzordeak osatuko dira gaia aztertzeke. Bestalde, Albin erabakiko da datorren denboraldiko Liga eta jokalarien estatusa. Gaiak luze joko du ez bairik gabe, eta guk merezi duen segimendua emango diogu.

Philippe Sella Ingalaterrara

JOKALARIEN fitxaketa eta diru mugimenduen adierazgarri nagusietako bat dugu Agen taldeko Philippe Sella internazional ohiak, Frantziako selekzioan gehien jokatu duena (111 aldiz) eta baita munduan ere. Aste honetan jakin dugu Ingalaterrako talderik botere suenean jokatuko duela datorren urtean, Nigel Wray aberatsaren Sarances taldean hain zuzen ere.

Talde britainiar hone-

tan bada beste jokalaria bikain bat Sellarekin batera ariko dena, Michael Lynagh australiar internazionala. Egun, Italiako ligan jokatzen du, baina gutxirako izango da. Orain dela hiru aste Hernanin izan zen eta argi utzi zigun Hego Afrikara ez zela joango; argi dago beste ideia bat zerabilela buruan.

Agendarrak abenduan ekin zion Wasps eta Sarances bi talde ingelesekin hitz egiteari. Azke-

nean Sarances-ekin bat egitea erabaki du. Sellaren helburua, Rugbyan aritzeaz gain, Sella Communication bere enpresa Ingalaterrara zabaltzea da. Antza denez, 780.000 libera (19.500.000 pezeta) jasoko ditu urtean. Michael Linagh-ek hiru urterako sinatu zuen.

Hala ere, Sellak Agen-ekin amaituko du aurtengo denboraldia eta espero du final-zortzirenetara sailkatzea, gutxienez. Finalera iri-

tsiz gero, berriz, bere unerik pozgarriena izango litzatekeela adierazi du; taldea utzi behar duenean, txapelketa irabazi eta Ingalaterrara joan. Ez da fitxaketa hauekin amaitzen dena; izan ere, joan den ostegunean, Will Carling Ingalaterrako kapitaina izan zen Frantzian. Bere asmoa, Akizeko Olivier Roumat, Frantziako internazionalarekin hitz egitea zen. Carling-ek Ingalaterran jokatzea proposatu zion. X

laburren

FUTBOLA

■ Atletico de Madridek Kopan finalera sailkatu aukera guztiak dauzka

ATLETICO DE MADRID deak Valenciaren aurkako katuko du gaur, Kopan lerdietako itzuliko partidua. Radomir Anticen gizonak irabazi zuten Valentziaren, eta gaurko faktoreak dira. Dena den, faktoreak ez du errenditu nahiko kalari guztiak adierazi kanporaketari buelta diezaioketela, «oso zaila da goen arren». X

TXIRRINDULARITZA

■ Mario Cipollini garaile Valentziako Itzulian

MARIO CIPOLLINI txirrindulari italiarrak irabazi Valentziako Itzuliko bigarren etapa, esprintean Laurent Jalabert gainditu ostean. Etapako azken kilometroan nahiko mugituak izan zuten salto ugariekin. Azken ordea, tropela bat egindako mugaratu zen, eta hori Mario Cipollini bikain moldatu. Sailkapen nagusian ez aldatetarik, eta Jalabert jarraitzen du lidergoan. X

SASKIBALOIA

■ Chicago Bullsek etxean galdu gabe jarraitzen du

CHICAGO BULLS taldeak 26-0ko marka ezarri zuen etxean, Minnesota Timberwolves 120-99 gainditu zuten. Phil Jacksonen muturreko modu honetara, 50-6 minutu karekin jarraitzen dute denboraldi honetan, eta titulua lortzeko gero eta favoritoak dira. Michael Jordan, 33 puntuarekin, izan zen berriro onena. Beste emaitzak: Cleveland 92, Warriors 80; Indiana 101, Portland 87; New Jersey 90, Miami 93; Milwaukee 88, Charlotte 88; Dallas 104, Philadelphia 121; Houston 105, Toronto 100; Denver 99, Washington 92; Clippers 99, San Antonio 90. X

ATLETISMOA

■ Martin Fiz Sevillan da Seulgo maratoni prestatzeko lanetan

MARTIN FIZ arabarra Mallorcako dago egunotan. Seulgo maratonia martxoaren 24an jokatuko da prestatzen. Fize oso pozik dago Mallorcaan prestatzeko keratu izanaz, bere irudikoa prestatzeko ona egiteko baina dintza guztiak betetzen dituela eta. Aurtun Atlanta da hirugarren helburua, eta han aurkituko dugun temperaturaren antzekoa dago hemen. Horregatik Diego Garcia eta Juzdado hango na etor daitezten konbentzitzen zuten saiatuko naiz. X